




**MERCADONA**

Ingurumen Memoria 2015-2016







# AURKIBIDEA

Mercadonaren ingurumen-kudeaketaren eredia.....	2
1. Optimizazio logistikoa .....	4
Logistika eta salmenta-eredu berriak	
Optimizazio-neurriak	
Azken milia	
Garraio intermodala	
2. Energia-aurrezpena.....	12
Energia-eraginkortasuna	
Gas hozgarriak	
Denda Eraginkorraren Eredu Berria	
3. Hondakinen kudeaketa.....	20
Prebentzioa	
Birbanaketa	
Hondakinen kudeaketa	
Berrerabilpena	
Birziklatzea	
4. Hornikuntza-katea .....	28
Ingurumen-ziurtagiriak	
Bitarteko hornitzaile fabrikatzaileen jardunbide egokiak	
5. Konpromisoak.....	36
Arrantza jasangarria	
ISSFrekiko lankidetzak	
Animalien ongizatea	
Lankidetzak	
6. 2015-2016ko datu azpimarragarriak.....	44

# MERCADONAREN INGURUMEN-KUDEAKETAREN EREDUA

Mercadona Juan Roig buru duen kapital espainiar eta familiarreko supermerkatu-konpainia bat da. Sortu zenetik, bere bezeroek elikagaiei (janariak eta edariak) eta etxeko garbiketari eta garbitasunari lotutako beharrian guztiak osoki betetzea du helburu, bai eta haien maskoten zaintzari lotutakoak ere, oinarri gisa harturik, konpainiaren kudeaketa-eredua den Erabateko Kalitate Ereduak zehazten duenez, enpresaren 5 osagaiak betetzea: “Nagusia” (bezeroa), Langilea, Hornitzailea, Gizartea eta Kapitala.

**5,1**

milioi **familiak**  
Mercadonan  
erosten dute

**1.614**

**denda**

**21.623**

milioi **euro**  
**salmentatan**

**79.000**

**langile**

**Familia-enpresa,**  
kapitalaren

**% 100**  
**espainiarra**

**11.071**

milioi **“kilitro”**  
salduak  
(salmenta-unitateak)

**11**

bloke  
logistiko

**126**

**bitarteko hornitzaile**  
fabrikatzaile

**3**

proiektuan/  
eraikitzen

**+2.500**

**hornitzaile**

**3**

biltegi  
satelite



Mercadonaren ingurumen-kudeaketaren ereduak helburu bera du, eta katearen gainontzeko elementuekin elkarlanean aritzen da bere ingurumen-jarrera hobetu nahian, talkarik garrantzitsuenak jasaten dituzten 3 alorretan: optimizazio logistikoa, energia-eraginkortasuna eta hondakinen kudeaketa, ingurumen-erronka berriei erantzuna eman, eta Europar Batasunaren barruan guztiok geure egin ditugun eraginkortasuna eta jasagarritasunaren inguruko helburuak betetze aldera.

Esfortzu hau aldaketa garrantzitsuen eskutik dator, bai Mercadonaren produktu freskoen salmentaren

gaineko ikusmoldeari bai denda eredu berriari dagokienez, eraginkorragoa eta jasagarriagoa izan dadin berriz diseinatu baita eredu hau. Konpainiaren “gutxiagorekin gehiago egiteko” helburu orokorrean ere sakondu nahi du, elikadura-segurtasuna eta “Nagusiak” (Mercadonak bezeroei deitzen die “Nagusi”) jaso behar dituen produktuen kalitatea eta freskotasuna bermatuz betiere.

Azken bi urteotan, 52 milioi euro inbertitu ditu Mercadonak ingurumenean eragina duten prozesu, produktu eta zerbitzuak hobetzeko, konpainia txertaturik dagoen gizartearekin hartu duen konpromisoaren barneko ekimen modura.



1.

# OPTIMIZAZIO LOGISTIKOA



Mercadona anbizio handiko birplanteamendu batean murgilduta dago bere salmenta-ereduei dagokienez. “Freskoak eta Lehorrak bereizirik” izeneko estrategiak handitu egin nahi du kalitateko eta gertutasuneko produktu freskoaren presentzia, eta, era berean, kate logistikoa laburtu, eta “Nagusia” eskaintzen dizkion produktuen freskotasuna hobetu.

Ekimen hauek guztiek esfortzua eskatzen dute, dagoeneko ezarririk dauden estrategiak egokitu egin behar direlako, eta, aldi berean, eraginkorrak izateko bidea ematen diguten aurrerapen teknologikoak txertatu behar dira.

Kamioien

**% 66**

Euro 6 dira

**646**

**denda** hornitu  
dira 2016an  
zirkulazio  
txikieneko  
ordueta,  
**logistika**  
**isilaren** bidez

**>% 6**

**tona**  
garraiatu dira  
**itsasontziz**  
**2016an**

**Gas bidezko**  
**kamioi berriak:**

**% 40**

CO<sub>2</sub> gutxiago  
emisioetan

## Salmenta-eredu berriek erronka logistiko berriak dakartzate

### Logistika eta salmenta-eredu berriak

“Freskoak eta Lehorrak bereizirik” strategiaren inplementazioak hobekuntza azpimarragarriak ekarri ditu produktuen kalitate eta freskotasunean. Hornitzaile-kopurua handiagotzea eragin du, eta bloke logistikoetatik hurbilago daude haiek egun. Hala, banaketa-katea laburtu egiten da, eta bezeroak tarte luzeagoa dauka produktuak kalitate eta freskotasun onenaz kontsumitzeko.

### Optimizazio-neurriak

Mercadonaren eredu logistikoa “baliabide gutxiagorekin gehiago garraiatzea” premisan oinarriturik garatu da. Konpainiak urteetan erabili dituen zenbait estrategia ezarri dira horretarako. Logistika Sailak estrategia horiek berrikusi eta eguneratzen ditu agertzen diren beharrezan araberak, eta sektorean sortzen diren aurrerapen teknologikoak arian-arian txertatuz joaten da xedatutako helburuak erdiesteko.

### Zortziaren Estrategia

Kamioi bakoitzak egiten dituen ibilbideak kontu handiz planifikatzen dira aldi bakoitzean, ibilgailu bakar batek ere ez dezan hutsik egin bere bidaia. Lortzen den probetxuaren adibide dugu alderantzizko logistika erabiltzea itzultako produktuak biltegiara eramateko; hala gertatzen da, adibidez, birziklatzeko gaiekin, berriz erabiltzeko kutxekin, paletekin, eta abarrekin.





### Kamioi-betetzea

Garraio-flota baten eraginkortasuna zuzenki loturik dago bidaia bakoitzean ahalik eta ale gehiena eramateko gaitasunarekin. Hori lortzeko, ezinbestekoa da produktuak ekodiseinu on bat izatea, non logistika eta biltegitratzea kontuan hartzen diren, eta kamioiek bidaia guztietan karga eramatea eta ahalik eta gehiena betetzea, airea garraiatzea saihestuz.

Mercadonaren bitarteko hornitzaile fabrikatzaileak eta hornitzaile espezialistak aktiboki ari dira lanean beren eraginkortasuna hobetzeko, eta ahalik eta gehienetan saiatzen dira ekodiseinu-neurriak erabiltzen. Hala, garraioan aurrezteaz gain, "Nagusia"ren etxeko biltegitratzea hobetzea lortzen da, bai eta edukiontzi eta bilgarrien hondakinak saihestea eta emisio kutsagarriak murriztea ere.



Ekodiseinu-adibide ona dugu Huevos Guillén bitarteko hornitzailearen 24 aleko formatu berria. Sistema horri esker, hobeto pilatzen dira produktuak, ale gehiago jartzen dira palet bakoitzeko, eta, hala, urtean 1.500 kamioi-bidaia gutxiago egiten dira.

Kamioi-  
betetzearen  
batez besteko  
tasa:  
**% 81**




Produktuen bidalketa eta garraioa Mercadonan

Logistika eraginkorra eta ingurumen-talka txikiagoa izan dadin, funtsezkoa da flota ahalik eta denbora gehienean aktibo edukitzea eta kamioiak beti beterik eramatea

### Flotaren berriztatzea

Gaur egun, garraio gehiena errepidez egiten da oraindik ere; horren ondorioz, gero eta garrantzitsuagoa da flota ondo kudeatzea eta motor eraginkorragoak eta gutxiago kutsatzen dutenak izatea.

Erabiltzen dugun kamioi-flota, Mercadonarentzat lan egiten duen Acotral bitarteko hornitzailearena, Euro 5 eta Euro 6 motorrez osatuta dago ia osoki. Emisioei buruzko Europako estandar zorrotzenak betetzen dituzte motor horiek, teknologiak hobetzen diren heinean flota berriztatzea helburu duen politikarekin bat.




Kamioiak Aberako bloke logistikoan, Bartzelonan

## Erosketak kaian bertan

Prozesu logistiko ohikoenean, hornitzaileak banatzailearen instalazioetara garraiatzen ditu produktuak, eta, gero, hutsik itzultzen da:

### Ohiko prozesua




Mercadonak eraldatu egin du prozesu hori, "Erosketak kaian bertan" deritzon estrategiaren bitartez: flotako kamioia joaten da orain hornitzailearen instalazioetara, han produktuak jasotzen ditu, eta bere zentro logistikotara eramaten; eta alderantzizko logistika baliatzen du, orobat, bueltako bidaian edukiontzi berrerabilgarriak eramateko.


Azken urteotan, konpainiak gertutasuneko produktu freskoaren alde apustu egiten du, eta, beraz, ugaldtu egin dira tokian tokiko hornitzaileak; halaber, bidaia gehiago egiten dira, laburragoak badira ere.

Hortaz, kilometro gehiago egiten dira errepidean, konpainiak bere gain hartu baititu lehen hornitzaileak egiten zituen bidaiak. Hala, eraginkortasun handiagoa lortzen da.

### Mercadonako prozesua



Era berean, eta beste zenbait estrategiarekin bat eginez, hala nola alderantzizko logistika eta kamioiak beterik eramatearekin, hornitzailearen zein Mercadonaren garraioaren eraginkortasuna handitzen du sistema honek, hutsik egiten diren guztizko bidaia-kopurua murrizten du, eta gehienbat Euro 5 eta Euro 6 kamioiak erabiltzea bermatzen du.



Hornikuntza-kateari hornitzaile gehiago eransteak kilometro gehiago egitea dakar

Zirkulazio txikieneko orduetan logistika isila erabilia, hiri-mugikortasuna hobetzen da

### Azken milia

“Azken milia” da salerosgaien garraioaren etapa garrantzitsuenetako bat: produktuek salmenta-puntura heldu artean hiri-ingurunean zehar egiten duten azken tarte hori, kamioiak hirietan sartzea eskatzen duena.

Urteak dira Mercadonak “zirkulazio txikieneko orduetan logistika isila” erabiltzen duela, zeinak begi-bistako onurak ekartzen baitizkio hiri-mugikortasunari. Honetan datza: zirkulazio txikieneko orduak baliatzea deskargak egiteko, eta baimendutako kamioi egokiturik handienak erabiltzea deskarga horiek egiteko, ahalik eta modurik isilenean. Hala, zirkulazio-pilaketa, kutsadura akustikoa eta hiriguneetako emisioak murrizten dira; garraioaren eraginkortasuna, deskargatze-denborak eta bide publikoaren okupazioa hobetzen dira; eta eragozpen gutxiago eragiten zaizkie auzokoei.

	2015	2016
<b>Probintziak</b>	42	45
<b>Dendak</b>	572	646

Mercadonako logistika isila zirkulazio txikieneko orduetan

### Gas bidezko kamioia


Mercadona, Acotral bitarteko hornitzailearekin batera, hiriko banaketan gas natural likidotuak higiarazitako kamioiak erabiltzeko proba pilotua egiten ari da. Halako motorrek % 40 CO<sub>2</sub> gutxiago igortzen dute erregai litro bakoitzeko, 10 aldiz murrizten dute partikula-igorpena, eta % 80 nitrogeno oxido gutxiago aireratzen dute Euro 5 estandarren aldean.



Madrilgo zenbait dendari zerbitzua ematen dien gas natural likidotuak (LNGa, xehetasunean) higiarazitako kamioia

### Garraio intermodala

Nahiz eta gaur egun ere garraio nagusia errepidekoa izan, merkantzien garraiobideak dibertsifikatzen ditu Mercadonak teknikoki posible den eta aukera hori emankorra izateko moduko azpiegiturak dauden lekuetan. Azken bi urteotan, trena eta itsasontzia erabiltzeak aukera eman du errepideko 96.000 bidaiak gutxiago egiteko.



Acotral bitarteko hornitzailearen tren bidezko merkantzia-garraioa

2.

# ENERGIA- AURREZPENA



Mercadonak zenbait neurri erabiltzen ditu bere energia-kontsumoa murrizteko. Esfortzu horiek bide ematen diote konpainiari Europako zein estatu mailako klima-aldaketaren kontrako borroka-estrategietara egokitzeko.

Gainera, uste osoa dugu gero eta eraginkorragoa izango den eredu produktibo bat lortu behar dugula, gizartearen parte garen aldetik agertzen zaizkigun erronkei erantzuteko moduko eredu bat, eta uste horri lotuta hartzen dira energia aurrezteari lotutako erabaki asko.

Denda  
Eredu Berriak  
dakarren energia-  
aurrezpen  
zenbatetsia:  
**% 40**

Denden  
**% 22k**  
du  
seinale-kontrol  
telematikoa

Energia-  
ikuskaritzaren  
programa ofizialeko  
**% 100**  
osatu da

**700**  
CO<sub>2</sub> tona  
saihestu dira  
denda  
eta urte  
bakoitzeko  
**hozte-sistema**  
berriari esker

CO<sub>2</sub> bidezko  
hozketak  
saihesten  
du 700 tona  
CO<sub>2q</sub> isurtzea  
denda eta urte  
bakoitzeko

Mercadonak  
bere energia-  
ikuskaritzaren  
programa  
osoa bete  
du 2016an

### Energia-eraginkortasuna

2007. urtean bere denda ekoeraginkorraren eredia ezarri zuen Mercadonak. Denda tradizionalarekin alderatuz energia-kontsumoa % 20 murrizteko neurriak txertatzen zituen eredu horrek. Eta, hurrengo urteetan, energia-eraginkortasuneko beste hobekuntza ugari txertatuz joan da.

Denda-eredua erabat berriztatzearekin batera, jausi kualitatiboa lortu da 2016an, eman zaion irudi eta txeragatik ez ezik, energia-eraginkortasunaren alorrean txertatzen dituen neurriengatik ere, aurreko denda ereduarekiko % 20rainoko aurrezpen gehigarria lortzen baita haien bitartez. Horrenbestez, kalkuluen arabera, % 40 murriztu da energia-kontsumoa, hasierako denda konbentzionalaren aldean.

### Energia-ikuskaritzaren programa

Karbonoan eta hondakinetan baxua den ekonomia baterantz norabidea aldatzea, horixe da Europar Batasuna murgildurik dagoen anbizio handiko egitasmo baten helburua. Horren harira egin da eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko 2017/27/UE Direktiba, zeinak 56/2016 Errege Dekretuaren forma hartu baitu espainiar legerian. Lege horrek ezartzen du enpresek energia-ikuskapenak egin behar dituztela beren instalazioetan, hobetzeko moduan dagoena kalkulatu eta horren arabera neurriak identifikatzeko. Ikuskaritza horiek egin ondoren, informazio erabilgarri eta beharrezkoa jaso du Mercadonak, bere prozesuak eta energia-jokamoldea hobetzeko lanean aurrera egiteko baliagarria.




Peligroseko supermerkatuko izoztuen atala, Granadan

### Denda ekoeraginkorretik Denda Eraginkorraren Eredu Berrira

Energia-eraginkortasuna gero eta faktore garrantzitsuagoa da edozein konpainiarentzat. Batez besteko tenperaturen igoerak eta muturreko gertakizun klimatikoek eraikin eta instalazioak egokitzea eskatzen dute, elikagaien hotz-katea eta denda barruko erosotasuna ahalik eta kostu txikienean bermatzeko.

Denda ekoeraginkorrean txertatutako neurriak lagungarriak izaten dira denda bakoitzeko batez besteko kontsumoa egonkortzeko, baina anbizio handiagoko neurriak ezartzeko hausnarketa egin behar da gaur egungo testuinguruan. 2015 eta 2016ko tenperatura altuek, batetik, eta Sant Sadurniko bloke logistikoa oraindik martxan zegoela Abererakoa abiatu izanak, bestetik, kontsumoa handitzea ekarri dute. Denda Eredu Berrian lan egitera akuilatu gintuen emaitza horrek, garraiatutako merkantziaren metro kubiko bakoitzeko energia-kontsumoa murriztea lortu nahi baitu ereduak, beste neurri askoren artean.





Denda bakoitzeko energia-kontsumoa bere horretan mantendu da 2012tik, baina hobetu beharreko gai bat da. Horretarako, Denda Eraginkorraren Eredu Berria lan egiten hasi zen Mercadona 2015ean, eta 2016an eman zuen argitara.

— Denda-kopurua — Batez besteko kontsumo elektrikoa (MWh) denda eta urte bakoitzeko


### Gas hozgarriak

Erabiltzen dituen gas hozgarrien orde, atmosfera berotzeko ahalmen txikiagoa duten beste batzuk ari da erabiltzen Mercadona, teknikoki posible den guztietan. Neurri horri esker, instalazioetako energia-errendimendua hobetzen da, eta atmosferan egindako emisioak murrizten.

CO<sub>2</sub>-sistema azpikritikoa (R134a+CO<sub>2</sub>) du Denda Eredu Berriak, soluziorik egoki eta bideragarriena gure herrialdeko eremu klimatiko ezberdinentzat. Eraberritzen diren dendetako batzuetan ere instalatzen da sistema hori, eta saihesten du 700 tona CO<sub>2</sub> baliokide aieratzea denda eta urte bakoitzeko.

		Denda-kopurua			
		2013	2014	2015	2016
Hozte-sistema	R404A	1.463	959	457	442
	R134a+R404A	4	70	72	72
	R134a+CO <sub>2</sub>	0	3	60	127
	R407A+R404A	0	489	958	973
<b>Dendak, guztira</b>		<b>1.467</b>	<b>1.521</b>	<b>1.547</b>	<b>1.614</b>

Gasen ordezkapenak, 2011n ezarri zen ihesen kontrolerako programa berriarekin batera, berotegi-efektua eragiten duten gasen ihesetan % 40ko beherakada lortu du 2013tik hona.




Kontsumo elektrikoa: kWh/m<sup>3</sup> merkantzia

2015eko kontsumo elektrikoa handitzearen eraginez, Denda Eredu Berriak txertatzen dituen eraginkortasun-neurriak hartu ziren

### Denda Eraginkorraren Eredu Berria

Espazio handiago eta erosoagoa eskaintzeko diseinatu da Denda Eraginkorraren Eredu Berria, bai eta bezeroei aurkeztutako eskaintza hobeto kokatzeko ere. Langileari ergonomia eta erosotasun handiagoa ematen dio gainera, eta ingurumen-talka murrizten duten neurri berriak txertatzen ditu.



#### Produktu izoztuen altzari itxiak

Izoztuen altzari atedun itxiak diseinatu dira, eta aurretik zeuden beste zenbait neurri ezarri, hala nola kondentsazio-sistema flotatzaileak; horren ondorioz, hotz-galerak saihesten dira, eta energia aurrezten da. Produktu hoztuen altzarietan ere txertatu da kondentsazio flotatzailea, eta sistema osoaren eraginkortasuna hobetu du.

## Txertatu diren neurrietako batzuk

Eraikinaren inguratzailari eginiko hobekuntzak

LED argiztapena

Uharteak eta produktu izoztuen armairu estalkidun eta atedunak

Kanpoko airea erabiliz hoztea, energia gutxiago erabiltzeko


Haizagailu elektronikoak klimatizazio-makinetan

Airea girotzeko tresnetako konpresoreen partzializazioa

Denda zabalik dagoen bitartean kondentsazio flotatzailea erabiltzea hozkailuen instalazio positiboan



**Seinaleen kontrola:** gas hozgarrien kontsumoak eta ihesak era jarraituan neurtzeko sistema, antzemate goiztiarduna. Bide ematen du berotegi-efektuko gasen ihesak % 25 murrizteko. 2016ko bukaeran, 347 dendatan instalaturik zegoen (kate guztiaren % 22), eta 2019an ezartzen bukatzeko helburua du.

**LED bidezko argiztapena**

Kontsumo elektrikoak murrizten duen LED teknologiaz osoki argizatuta dago denda, eta energiaren kudeaketa adimenduna ahalbidetzen du horrek.

**Eremuka antolatutako energia-kudeaketa**

Zentralizatutako kontrol-sistema bat izateak aukera ematen du energia-kontsumoa beharizanen arabera doitzeko, argiztapena eta klimatizazioa eguneko orduaren edo langileen eginbeharren arabera modulatu baitaitezke.

**Isolamenduaren hobekuntza**

Inguratzailaren isolamendu termiko eta akustikoa hobetu egin da, eta denda dagoen lekuko zona klimatikoari egokitzen zaio. Hobeto klimatizatze bidea ematen du horrek, eta energia-kontsumoa murrizten du.

### Horma eta estaldura berdeak

Zenbait dendatan eraiki diren horma eta estaldura berdeek, ingurunearekiko bertakotzen ez ezik, eraikinaren isolamendu termiko eta akustikoa hobetzen ere laguntzen dute.

Egitura horiek hesi bisual modura ere jokatzen dute, eta gero eta leku gehiago ari dira hartzen hirietan, ingurune urbanizatueta berdeguneak ugaltze aldera.



### Capacis Fundazioa

Mercadonak eta desgaitasun intelektualen bat duten pertsonen enplegua ematen dien helburu sozialeko Capacis Fundazioak elkarrekin egiten duten lanari esker egiten dira instalazio hauen mantentze-lanak.



Asura kaleko supermerkatuko lorategi bertikala, Madrilan





Madrilgo General Martínez Campos pasealekuan dagoen supermerkatuaren estalkiko lorategia, zeina etxadi barruko patio batean baitago



Peligrosetako supermerkatuko haragi- eta urdaitegi-atalean dagoen trencadís horma-irudia, Granadan

### Trencadís horma-irudiak

Desgaitasun intelektualen bat duten 200 laguni baino gehiagori enplegua ematen dieten beste zenbait fundazio eta okupazio-zentrorekin ere egiten du lan konpainiak. Horren emaitza dira kateko denda guztietan ikus daitezkeen trencadís teknikaz egindako horma-irudiak; guztira, 3.480 baino gehiago.

### 3. HONDAKINEN KUDEAKETA



Hondakinen kudeaketa gero eta protagonismo handiagoa ari da hartzen egun, hondakinak baliabide bihurtzeko teknika berriak garatu eta ezartzen diren heinean, hain justu. Prebentzioa jarri behar da, jakina, hondakinak kudeatzeko estrategia eraginkor baten oinarrian, baina hondakinak ekonomia produktiboan atzera txertatzeko moduak ere aurkitu behar dira, beste prozesu batzuetan erabiltzeko lehengaiak izan daitezten.

Mercadonaren gisako supermerkatu-kate batentzat oso garrantzitsua da elikagaiei ahalik eta probetxu

handiena ateratzea. Konpainiak, horren ondorioz, estrategia ugari erabiltzen ditu elikagaiak zabor huts bihur ez daitezten. Prozesu baten azpiproduktuek beste prozesu baterako balio dezatela helburu gisa harturik, bere hornitzaile eta bitarteko hornitzaileen artean enpresa-sinbiosiak gauzatzeko egitasmoei gehitzen zaizkie estrategia horiek.

Bere produktuen gehiengoa edukiontzi berrerabilgarrietan garraiatzen bada ere, Mercadonak balioa berriz ematera bidaltzen ditu usatzen dituen erabilpen bakarreko edukiontzi komertzialen materialen % 100.


Mercadonaren  
hondakinen  
**% 74**  
berreskuratzen  
da, edo berriz  
ematen zaio  
balioa

**10.000**  
tona elikagai  
birbanatu  
dira 2015ean  
eta 2016an

**2.500**  
tona edukiontzi  
murriztu dira  
bitarteko  
hornitzaileen  
neurriei esker

**100.000**  
tona kartoi  
aurreztu  
dira, **ontzi**  
**berrerabilgarriei**  
esker

Erabilpen bakarreko poltsak  
erosketa-tiket bakoitzeko



### Prebentzioa

Sortutako hondakinak murriztean datza baliabideen erabilpenaren inguruan ekonomia eraginkor bat lortzeko estrategia nagusi eta garrantzitsua. Elikagai-banatzaileri gisa, Mercadonak neurri franko ezarri ditu elikagai guztiei katean zehar probetxua atera dakien eta, hori posible ez denean, baditu merkantzia horiek gehiena behar dituztenei helarazteko birbanaketa-programak.







Kalibre txikiko laranja dendetan zuku egin berria eskaintzeko baliatzen dira



Estrategia horien barnean, bitarteko hornitzaile batek beste baten azpiproduktuak lehengai gisa erabili ahal izateko moduak bilatzen ditu Mercadonak.

Laranja-zuku fresko zukutu berriaren zerbitzua txertatzeak, esaterako, aukera eman du itxura edo tamainarengatik merkaturatzeko zailak ziren 2.500 tona laranja nekazariei erosteko 2016an eta produktu horri probetxua ateratzeko.

Tamaina edo pisu estandarrekoak ez diren brokoli-aleak ere, nekazaritzako bitarteko hornitzaileak bere horretan ezin saldu eta alde batera uzten dituenak, Brokoli Floreta gisa baliatzen ditu Verdifreshek bere barazki-poltsak osatzeko, eta, hala, merkaturako bidea ematen dio kalitate goreneko produktu bati.

Frutak, barazkiak eta ortuariak formatu ezberdinetan aurki daitezke salgai Mercadonaren dendetan; horri esker, probetxua ateratzen zaie kalitate goreneko hainbat produkturi

Mercadonak  
**10.000**  
 tona elikagai  
 birbanatu  
 ditu 2015ean  
 eta 2016an

**Birbanaketa**

Salmentarako dagoeneko egokiak ez diren baina hala ere kontsumitzeko egoera ezin hobean dauden elikagaiak (ale apurtuak dituzten packak, esaterako), dohaintzan ematen ditu konpainiak, gertuko hainbat jantoki sozialekin ezarri dituen elkarlaneko dinamikei esker.

Elikagai freskoak aprobetxatzea ahalbidetzen du prozesu horrek, banaketa-kate horiek oso laburrak baitira eta eguneroko zerbitzua ematen baitaie jantokiei; hartara, ahal bezain besteko probetxua ateratzen zaie elikagaiei.



Mercadonako banatzailea Sant Joan de Deu zerbitzu sozialetako zentzora elikagaiak eramaten, Valentzian

Jantoki sozialei egindako dohaintzak gertutasuna eta egunero ematea dute oinarri, produktu freskoa ahal bezain beste aprobetxa dadin

Egun, Espainia osoan barrena sakabanatutako 120 jantoki sozialekin egiten du lan Mercadonak. Programa informatiko bati esker, trazabilitatea eta elikadura-segurtasuna berma daitezke.



Informazio gehiagorako, kontsultatu Mercadonak eta Tarragonako Bonavista auzoko "Joventut i Vida" gizarte- eta hezkuntza-elkartek duten elkarlanari buruzko bideoa

### Hondakinen kudeaketa


Goian zehaztutako jardueraz gain, kudeatzaile baimenduei bidaltzen zaizkie Mercadonak oro har sortzen dituen hondakinak, arriskutsuak zein arrisku gabekoak, haiek tratatu eta balioa berriz eman diezaieten. Bloke logistikoetan, hondakin arriskutsu gehiena sortzen den lekuetan, hain justu, horretarako *ad hoc* jarritako garbigune batean biltzen dira: estalpeko leku itxi bat izaten da, seinalizatua, norbanakoen babeserako ekipatua, eta emisiorik edo ingurumen naturalerako iragazpenik izan ez dadin segurtasun neurri guztiak dituen.



Abrerako bloke logistikoko bilketa-gunea (Bartzelona)


Mercadonak hainbat estrategia erabiltzen ditu hondakin gutxiago sortzeko dendetan zein biltegietan. Oharturik oso garrantzitsua dela kudeatu beharreko hondakinak ahal bezain beste murriztea, une oro bilatzen dira haiek saihesteko eta berrerabiltzeko moduak, eta bide horietatik joan ezin den hondakin oro kudeatzaile baimenduen eskuetan jartzen da.

Bai hondakinak murrizteko programak bai instalazioetan egiten den prebentziozko mantentze-lanak lagungarriak dira denda eta biltegien funtzionamendua optimizatzen; halaber, zabortegira botatzen diren hondakinen kopurua gutxitzen dute.



Hondakinen % / zerbitzatutako kg

Sortutako hondakinek zerbitzatutako produktua baino %1 gutxiago izaten jarraitzen dute



Mantentze-lanen hondakinak: g/m<sup>3</sup>


Mercadonaren bitarteko hornitzaileek 2.500 tona edukiontzi-material aurreztu zituzten 2015ean eta 2016an

### Berrerabilpena

Mercadonak produktuak garraiatu eta gordetzeko erabiltzen dituen edukiontzi berrerabilgarrien *pool*aren bidez (Logifruit bitarteko hornitzailearena da), aurrezpen nabarmenak lortzen dira.

Kutxa bakoitzak 5 urteko balio-bizitza du, eta urtean 13 bat aldiz egiten du prozesu logistikoa. Munta handiko aurrezpena dakar horrek, bai gaietan, bai baliabideetan, erabilpen bakarreko kartoizko kutxen erabilpenarekin konparatzen badugu. Berrerabiltzeko moduko edukiontziei esker, urtean 100.000 tona kartoi baino gehiago saihestu daiteke, eta prozesu guztia hobetzen da gainera.

Mercadonaren bitarteko hornitzaileek ere badituzte ildo horretan beren estrategiak. Izan ere, azken bi urteotan 300 neurri baino gehiago gauzatu dituzte, bai eta edukiontzi-materialetan 2.500 tona aurreztu ere, Ecoembes-en Prebentziorako Enpresa Planaren datuen arabera.



Logifruit kutxa tolesgarrien erabilpenak espazioaren % 80 aurrezten du alderantzizko logistika egitean



Mercadonaren prozesuetan Logifruit kutxak erabilia, energia aurrezten da, eta hondakinak saihesten dira

## Birziklatzea

Murrizketa eta berrerabilpena hobestea beharrezkoa bada ere, birziklapena supermerkatu bateko prozesuen berezko parte da. Dendetan pilatzen den merkataritzako edukiontzi-material guztia bloke logistikoetara itzultzen da alderantzizko logistika erabiliz, eta handik, trinkotu ondoren, kudeatzaile baimenduei bidaltzen zaie, material hori trata eta balioa berriz eman diezaioten.




Gas bidezko kamioi bat, San Sebastián de los Reyeseko denda batean alderantzizko logistika egiten, Madrilen

Alderantzizko logistikari esker, hutsik egiten diren bidaien kopurua murriztu egiten da, eta gainera, materialak trinkotu eta kudeatzaile baimenduei entregatzeko aprobetxatzen dira bloke logistikoetako instalazioak. Hala, prozesua optimizatzen da, eta ziklo produktiboan material baliotsuak berriz sartzea lortzen da. Horrez gain, kostuak txikiagotzen dira, eta ingurumen-talka murrizten da.

### Birziklatze-tasa


	2015	2016
<b>Birziklatzea / Balorizazioa</b>	% 73	% 74
<b>Suntsiketa</b>	% 27	% 26

Mercadonak balorizatzen edo birziklatzen du sortzen dituen hondakin guztien ia hiru laurden. Urtero-urtero lanean jarraitzen dugu zenbateko hau hobetze aldera.




Birziklapena: kg/m<sup>3</sup>


### Kartoa




### Plastikoa



### Poliestirenoa



### Zura



# 4. HORNIKUNTZA- KATEA



Mercadonak, banatzaile gisa lan egiteko, ezinbestekoa du bitarteko hornitzaile fabrikatzaileekin eta hornitzaile adituekin gertu-gertu elkarlanean aritzea. Hornikuntza-katearen katebegi guztien arteko komunikazioari esker, eraginkortasuna hobetu, baliabide-kontsumoa gutxitu, eta sortutako hondakinak aprobetxatzeko moduak aurki daitezke.

Horren adibide dira Mercadonaren hornitzaile eta bitarteko hornitzaileek hobekuntzak eta jardunbide egokiak sustatzeko etengabe abiatzen dituzten ekimenak. Zenbait adibide nabarmentzen ditugu hemen, guzti-guztiak egiten duten lan saiatua eta jasangarritasunarekin duten konpromisoa erakuste aldera.




Mercadonaren bitarteko hornitzaileen **% 90ek** ingurumen-egiaztatzea dute

Ura eta energia **aurrezteko 400 neurri** espezifiko hartu dira

Mercadonaren produktu kosmetiko guztietan **plastikozko mikroesferak ezabatu** dira

Ingurumenerako garrantzia duten **900 neurri** baino gehiago hartu dituzte bitarteko hornitzaile fabrikatzaileek

Peligrosekoko supermerkatuaren fatxada (Granada)



Bitarteko hornitzaileen instalazioetako ISO 14001 edo EMAS egiaztagiria

- Ziurtagiria duten instalazioak
- Ziurtagiria eskuratzeko prozesuan dauden instalazioak

### Ingurumen-ziurtagiriak

Mercadonaren ereduak eskatzen duenez, nazioartean aintzatesten diren ingurumen-egiaztagiria (ISO 14001, EMAS...) izan behar dituzte bere bitarteko hornitzaileek, alor honetan egindako jardunbide egokiak frogatze aldera.


Mercadonaren bitarteko hornitzaileen instalazioetako % 90ek badute gaur egun ingurumen-egiaztagiriren bat. Eta gainontzeko instalazioak egiaztatze-prozesuan daude, fabrika edo kokapen berriak direlako.

### Bitarteko hornitzaile fabrikatzaileen jardunbide egokiak

Konpainiaren bitarteko hornitzaile guztiak etengabe ari dira lanean "Nagusiarri" bere Erabateko Erosketa kalitate onenean eta hileko kostu minimoan eskaintzeko. Horretarako, prozesuetan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzen saiatu behar da une oro. Guztiek txertatu dituzte aurrezpen-neurri ugari, baliabide material, ur, edo energia gutxiago erabiltzea erdiesteko, bai eta prozesuan sortzen diren hondakinak murriztu edo are ezabatuzko, zenbait kasutan gertatzen den moduan.

Neurri horien guztien ildotik, hondakinen kudeaketa eraginkorra egiteko gero eta joera handiagoa atzeman daiteke, bai horiek barneko prozesu batean erabiliak izan daitezten (kogenerazioa, ongarriketa...) bai, hondakinak beste bitarteko hornitzaile bati emanez, hark bere ekoizpen-prozesuan balia ditzan, ekonomia zirkularren zikloa ixteko.

Esfortzu horren emaitza dira 2015ean eta 2016an horiek guztiek hartu dituzten 900 neurri baino gehiago. Beren interes bereziagatik azpimarratuko ditugu haietako batzuk, agerian jartzen dutelako emaitzarik onena etengabe lortzen saiatu izana MercaDonako "Nagusiei" eskaintzen zaien produktuetan kalitate hobereana lortzeko.



Bitarteko hornitzaileek hartzen dituzten neurri gehienak energia aurreztu eta hondakinak murrizteko dira





Mercadonaren bitarteko hornitzaileen zerrenda. Ekoizten dituzten produktuen edukiontzietan argiro identifikaturik agertzen dira (2016/12/31ra arteko datuak)



### Huevos Guillén

Bitarteko hornitzaile honek olio-zirinak lehertzeko sistema berri bat txertatu du Bullaseko oilategian (Murtzia); hala, simaurraren amoniako-kantitatea % 80 baino gehiago murriztu du. Urtean 70.000 tona hondakin prozesatzeko gauza da sistema hau, ingurumenaren kutsadura-foku garrantzitsu bat aldeztu aurretik prebenituz.




### Ubesol-Maverick Taldea

Botilak puzteko instalazioetan ekoiztako gaien kopurua handitu egin du higiene pertsonalerako produktuak egiten dituen talde honek; horri esker, 55 tona plastiko aurreztu dira, eta errepidean 50 kamioi gutxiago ibili. Produktu-kopuru handi samar baten logistika ere hobetu duenez, bestalde, pilatzean ere eman ditu aurrerapausoak, eta errepideko 70 bidaia saihesten ditu urtean.

### SPB

Lixibak eta garbiketarako produktuak ekoizten ditu SPBk Mercadonarentzat. Ontziak puzteko instalazioetan egin dituen hobekuntzek 500.000 kWh aurrezteko modua ematen diote urtean, kontsumoak hobeto kudeatzen baitira. Gainera, puzteko instalazioetan sortzen diren ebakin eta birrinduak berriz balia ditzake horri esker, urtean 120 tona plastiko berreskuratzeko moduan. Ekodiseinu-neurriak ere txertatu ditu bere ontzietan: poliestirenoz egiten ziren zenbait produktu, orain, PETez ekoizten dira. Birziklatua izateko ezaugarri hobekak izateaz gain, urtean 100 tona material aurrezteak dakar gai horrek.



### Persán

Persánek, garbiketarako, arropak zaintzeko eta baxera zaintzeko produktuen alorreko bitarteko hornitzaileak, zero emisio izatea lortu du bere hondakin guztien kudeaketan, % 100 balorizatzen baitira haren hondakinak, materialki zein energetikoki. Paleten espazioari probetxu handiagoa ateratzea lortu duenez, bestetik, kamioiez egindako 1.500 bidaia aurrezteko modua lortu du.



### SAT Canarisol

SAT Canarisol bitarteko hornitzaileak barazkiz eta ortuariz hornitzen du Mercadona Kanarietan. Hornitzaile horrek neurri berriak txertatu ditu gehiago aurrezteko eta eraginkortasun energetiko hobea izateko. Horren ondorioz, bere ur- eta energia-kontsumoak murriztu egin dira landatzen dituen lursailetan. Gainera, bere instalazioetan hondakinei probetxua ateratzeko sistema abian jarrita, animaliak elikatze erabiliko diren 1.200 tona hondakin (urtean) entregatzea lortu du.



### Importaco-Casa Pons

Fruitu lehorren eta snack-en alorreko bitarteko hornitzailea da Importaco-Casa Pons. Zenbait ekodiseinu-neurri jarri ditu abian kakahuete oskoldunez osatutako kutxen logistika hobetzeko, eta kutxa bakoitzeko produktu-aleak gehiagotzeko modua eman dio ekimen horrek. Hortaz, produktu kantitate bera eramateko kamioi-bidaia gutxiago egin behar direnez orain, kartoizko 140.000 kutxa aurrezten dira urtean, 50.000 kilo material inguru.



GRUPO SIRO



### Siro Taldea

Gaileta, ogi ingeles, elikadura-pasta, gozogintza eta zerealen bitarteko hornitzaile honek gaiak balorizatzeko lantegi bat du, eta hainbat prozesutako 82.000 tona azpiproduktu berreskuratatu ditu horri esker, bereak zein beste bitarteko hornitzaile batzuenak, animaliak elikatzeko lehengai bihurtzeko. Hondakinak murriztu eta berreskuratuzeko estrategia orokorraren barruan, halaber, araztailearen lohiak ongari gisa erabiltzen ditu, haiek konpostatu ondoren. 2016an, bestetik, % 52 emisio gutxiago egin zituen 2015ean baino.

### Anitín

Ogi bereziak ekoizten dituen bitarteko hornitzaile honek bere azpiproduktu organikoaren parte bat bidaltzen dio Cunicarn enpresari —Mercadonaren bitarteko hornitzailea ere bada—. Bien arteko lankidetzari hasi zenetik, 5.000 tona azpiproduktu baino gehiago bidali dizkio Anitínek Cunicarni, untxientzako pentsu gisa aprobeitza ditzan.

ANITÍN

### Arrocerías Pons

Arroza ekoiztean sortzen duen azpiproduktuetako bat, arroz hautsia, etxeko animalien pentsu egiteko erabiltzen du beste bitarteko hornitzaile batek (Bynsa Mascotasek). Horrekin, urte bakoitzeko 3.100 tona arroz hautsi sartzen dira berriro Mercadonaren prozesuetan, bitarteko hornitzaile bien eraginkortasunaren eta beren kostu eta prozesuen optimizazioaren mesederako.



ARROCIERIAS PONS S.A.

APISOL

### Apisol

Apisol ezti-ekoizleak digestio anaerobioa egiteko instalazio batera eramaten du bestela hondakin modura kudeatuko litzatekeen ezti-ura. Gaur egun, 1.700 tona erabiltzen dira urtero lantegi horretan, gasa eta elektrizitatea sortzeko.

### JR Sabater

Mercadonarentzat ozpinak, ziropak eta ongailuak egiten ditu JR Sabaterrek, eta hobekuntza logistiko garrantzitsuak txertatu ditu bere prozesuetan: alde batetik, litro bateko botilen eta 250 ml-ko botila-kartoiaren pilaketa hobetu du, eta produktu horien 2.800 palet aurretzen ditu urtean; bestetik, 12 aleko kutxen formatutik 24 alekora pasatu da, eta, hala, urtean ia 10 tona kartoi aurretzen ditu.

JR Sabater





### Castletownbere

Anisakisari buruzko proba pilotua egiten ari da arrantzaren alorreko Castletownbere Fishermen's Co-op bitarteko hornitzailea. Eremu magnetiko eta mikrouhinen bitartezko tratamendu termikoa egiten duen errektore bati esker, arrainaren erraiak berotzen ditu era azkar eta uniformean, hor dabilzan bizkarroiak ez-aktibo bihurtu arte. Hala, beste arrain batzuek errai horiek jaten dituztenean, anisakis bizirik ez dutenez, ingurunea ez da birkutsatuko. 23.000 € inbertitu dira sistema aitzindari horretan, eta "Tea Rose" itsasontzian instalatu da proba-fasean. Erabiltzeko prest egongo da 2017an.



### SP-Berner

SP-Berner bitarteko hornitzaileak bere prozesuak hobetzen jarraitzen du, eta Ekonomia Zirkularrean aurrerapausoak ematen, Mercadonaren beste bitarteko hornitzaile batzuen azpiproduktuak oinarri izanik etxea garbitzeko produktuen lerro bat eskaintzeko. Azpiproduktu horiek oso konplexuak dira birziklitzeko, hala nola nekazaritza-manta termikoak.

# PLASTIKOEN EZABATZEA



Berezko markako produktu askotan ontziratze materiala murriztu bada ere, badira beren garrantziagatik nabarmentzen diren bi ekimen:

Ubesol-Maverick bitarteko hornitzaileak WC oihaltxo materiala komuneko paper hezearekin ordezkatu du, ohiko komuneko papera bezala desegin eta osoki zelulosaz eginda dagoen materialarekin, alegia, produktuak saneamendu-sistemak tratatu ditzan saihestuz.

RNB bitarteko hornitzaileak, bestalde, Deliplusen produktu esfoliatzaileen lerro osoaberregindu, plastikozko mikrosferak gai naturalekin ordezkatzeko (mahats-hazia, itsas-gatza, silizea, eta abar).



# 5. KONPROMISOAK



Konpainiak salgai jartzen dituen arrantza-produktuen jasangarritasuna bermatzearen alde egiten du Arrantza Produktuak Erosteko MercaDonaren Politikak. Gaur egun, arrainen alorreko hornitzaile eta bitarteko hornitzaile guztiek izenpetu dute dagoeneko, eta urtez urte sendotzen eta hobetzen jarraitzen du. Era berean, animalien ongizatearekiko konpromiso irmoa dute bai

konpainiak bai bere bitarteko hornitzaileek, 2016an onartutako Animalien Ongizaterako Politikan islatzen denez.

Orobat, jasangarritasunarekin zerikusia duten estatuko zein nazioarteko forotan era aktiboan parte hartzen eta lankidetzan jarduten jarraitzen du MercaDonak. Alor horretan egiten dituen esfortzuak zein diren jakinarazten saiatzen da foro horietan, eta, gero, hornitze-kate jasangarriago bat eraikitzen laguntzen.

Hornitzaileen  
**% 100ek**  
onesten dute  
arrantza-  
politika

**Animalien  
ongizaterako  
politika  
argitaratzea**

**Konpromisoa:**  
2025erako  
**oilo erruleak**  
kairoletan dituzten  
oilategiak sistema  
alternatiboetara  
birmoldatzea

**SARIA**  
 “Arrantzaren  
 Alorreko Negozio  
 Jasangarria”  
 Castletownbereri



Castletownbere Fishermen's Co-op bitarteko hornitzaileak jaso zituen “Urteko Negozio Jasangarria” eta “Arrantzaren Alorreko Negozio Jasangarria” Green Awards sariak, arrantza sektorearen jasangarritasunaren alde egiten dituen jardunbide egokiak direla eta.

## Arrantza jasangarria

Dagoeneko arrantzaren alorreko hornitzaile eta bitarteko hornitzaile guztiek hitzeman dute Arrantza Produktuak Erosteko Mercadonaren Politika beteko dutela.



## Arrantza Produktuak Erosteko Politika



Konpainiaren webgune korporatiboan argitaraturik dago Mercadonaren Arrantza Produktuak Erosteko Politika

- Legez kanpoko, aitortu gabeko eta aratu gabeko arrantza-produkturik ez izatea.
- Trazabilitatea bermatzea harrapatzen denetik saltzen den arte.
- Produktuak indarrean dagoen legeria betez etiketatzea, informazio argia, egiazkoa eta kontsumitzaileak ulertzeko modukoa emanez.
- Besteak beste gutxieneko neurriak, geldialdi biologikoak eta debekualdiak arautzen dituzten legeak eta neurriak betetzen direla bermatzea.
- Arrantza-metodo eta -aparailuei dagokienez, erabilgarri dauden teknika onenak eta etengabeko hobekuntza babestea.
- Jasangarritasun-irizpideak betetzen dituzten produktu berriak babestea.
- Mehatxatuta edo galzorian dauden espezierik ez erabiltzea, ezta mehatxu handiko ekosistemetakorik ere.
- Akuikultura jasangarriko produktuak sustatzea, nazioartean onartzen diren jardunbide egokien estandarren bidez.
- Tokiko arrantza babestea.
- Lan-baldintza duinak errespetatzea.

*Erabaki guztiak fidagarritasun aitortuko erakunde eta instituzioek ematen duten informazio zientifikoan oinarrituz hartuko dira.*



## ISSFrekiko lankidetzeta

Era arduratsuan kudeatzen diren kaletatik dator Hacendado atun ontziratua % 100, etengabe egin den lanari esker eta Escurís (Jealsa-Rianxeira) bitarteko hornitzaileak eta atunaren arrantzaren jasagarritasuna sustatzen duen irabazi asmorik gabeko ISSF entitateak (International Seafood Sustainability Foundation) elkarrekin duten lankidetzari esker.

Urtero-urtero ikuskatzen da Escurís (Jealsa-Rianxeira), ISSFk sustatzen dituen jardunbide guztiekin duen konpromisoa egiaztatzeko, produktuaren trazabilitate osoa eta ontzietako kapitainek jasagarritasuneko jardunbide egokietan prestakuntza jaso dezaten kontuan hartuz.

Lankidetzeta honen barnean, eta mundu osoko beste 83 erakunderekin batera (GKEak, arrantza-flotak eta banatzaileak barne), Mercadona ere ISSFek eskumeneko agintariei bidali dien gutunari atxiki zaio, non atunaren arrantzaren jasagarritasuna hobetzeko ekintzak eskatzen diren.



Mundu guztiko 83 erakunde, besteak beste Mercadonak, eskatzen diete agintariei arrantza-jasagarritasunaren aldeko lehentasunezko ekintzak egin ditzatela



### Animalien ongizatea

Urteetan zehar frogatu denez, animalien ongizatea, bere alderdi guztietan, ezin utzizko printzipioa dute bai Mercadonak bai bere hornitzaile eta bitarteko hornitzaileek, sektorean arian-arian exijitu diren betekizun eta hobekuntza ezberdinetara egokitu baitira, eta aurrea ere hartu baitiete.

Mercadonaren Animalien Ongizaterako Politikak konpromiso hauek islatzen ditu, eta bere hornitzaile eta bitarteko hornitzaileekin batera behar diren neurriak hartuko ditu konpainiak bertan zehazten diren helburu guztiak lortzeko:

### Mercadonaren Animalien Ongizaterako Politika

Animalien  
ongizatea  
ezinbesteko  
betekizuna da  
Mercadonarentzat  
zein bere  
hornitzaileentzat

- *Animalien ongizatea ezinbesteko eskaera etiko eta soziala da, Mercadonak bere "Nagusiei" eskaintzen dien produktuen kalitatea bermatzeko bete beharrekoa.*
- *Mercadonak konpromiso irmoa du abeltzaintzako ustategietako animalien babes eta ongizatearekin.*
- *Horrexegatik da beharrezkoa animalia-aren bizitza osoan zehar gai honi buruz dagoen legeria ez ezik animalien ongizaterako arauak ere betetzea abeltzaintzako ustategietan zein bestelako prozesuetan. Hortaz, estuki lan egiten du konpainiak, bere hornitzaileekin batera, helburu hauek lortzeko:*
  1. *Haragia, arrautza eta animalia-jatorriko produktuak ematen dituzten animaliak haztean, ziurtatu behar da ez dituztela kondizio hauek:*
    - *Egarria eta gosea; ura hartzeko modua eman behar zaie, bai eta dieta egoki bat ere, osasuna eta kemena izan dezaten.*
    - *Deserosotasuna; inguru aproposa eman behar zaie, haiek babesteko modukoa, eta atseden har dezaten leku eroso eta egokia duena.*
    - *Mina, lesioak eta gaixotasunak; prebentziorako neurriak, diagnostiko azkarrak eta tratamendu egokiak eman behar zaizkie.*
    - *Portaera guztiz normala adierazteko ezintasuna; behar bezain beste leku eman behar zaie, instalazio egokiekin eta espezie bereko beste animalia batzuk lagun dituztela.*
    - *Beldurra eta estutasuna; gobernatzean behar ez den oinaze oro saihestu behar da.*
  2. *Abeltzaintzako ustategietako langileek prestakuntza egokia izan behar dute, maneiatzeko moduagatik sortutako edozein min edo sufrimendu induzitu galarazteko hazkuntzan, garraioan, zein hiltzean.*
  3. *2021. urterako, animalien ongizateko estandar egiaztagarriak ezartzea.*

### Lurzoruan hazitako oilo erruleak

2007an ekin zion Huevos Guillének (arrautzen arloko Mercadonaren bitarteko hornitzaileak) bere oilategiak animalien ongizaterako legedi berriari egokitzeari, 2012rako behar zuen indarrean jartzeari aurrea hartuta. Arautegi hori betetzen zuen Espainiako lehen ekoizlea izan zen.

Hala eta guztiz ere, konpainia jakitun da gizartean gero eta sentsibiltate handiagoa dagoela eskortako animalien ongizatearen inguruan, eta bat egiten du sentsibiltate horrekin.

Huevos Guillén bitarteko hornitzailearekin zein gainontzeko hornitzaile guztiekin Mercadonak partekatzen duen kezka horren ondorioz, landako oiloen (hots, askatasunean hazien) arrautzak merkaturatzen aitzindaria izan zen konpainia 1990eko hamarkadaren hasieran. Gaur egun, kateko supermerkatu guztietan aurki daitezke.

Bi urtetan Huevos Guillénekin lanean jardun ondoren, 2017an zehar gure bezeroei zorian eta kaiolarik gabe hazitako oiloen arrautzak eskaintzen hastea aurreikusten dugu. Kontsumitzaileei aurkezten zaien arrautza-sorta zabaltzeko beste modu bat izango da. Gainera, oilategiak birmoldatzeko elkarlanean ari gara, 2025. urteari begira.

2025erako  
oilo erruleak  
kaioretan dituzten  
oilategiak sistema  
alternatiboetara  
birmoldatzea



Huevos Guillén bitarteko hornitzailearen oilo erruleak (landakoak), askatasunean haziak

## Lankidetzak

Mercadonak estatuko zein nazioarteko foro, elkarte eta ekimen ugartan parte hartzen du, jasangarritasunaren alorreko jardunbide egokiak sustatu eta partekatze aldera. Horren erakusgarri dira Mercadonaren eta bere bitarteko hornitzaileen prozesuek ingurunearekiko duten garrantziari buruzko txostenak eta banaketaren jasangarritasunarekin zerikusia duten ekimenak.

## REAP

Jasangarritasunaren aldeko Banaketaren Foroa (REAP) europar plataforma bat da, 2009an eratuia Europako Batzordearen lankidetzarekin, helburu duena banaketaren alorrean egiten diren ingurune-jardunbide egokiak nabarmentzea eta hornitze-katean zehar dauden interes-talde ezberdinen arteko komunikazioa sustatzea. REAPen jokoera-arauak honako helburu hauek ditu:

1. Produktu jasangarrien ekoizpena eta erabilera sustatzea
2. Denden ingurumen-eragina murriztea
3. Salerosgaien garraioa optimizatzea
4. Gainontziratzea murriztu eta hondakinak gutxitzea
5. Establezimenduetarako sarbideak hobetzea
6. Bezeroekiko komunikazioa hobetzea

Mercadona REAPko kidea da sortu zenetik (hau da, 2009tik), eta modu aktiboan parte hartzen du haren konpromiso eta ekitaldietan.



[http://ec.europa.eu/environment/industry/retail/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/environment/industry/retail/index_en.htm)



Adela Torres, Mercadonaren Ingurumeneko gerentea, 2016eko azaroan Comertia familia-enpresen elkarte kataluniarrak antolatu zuen "Retail eta Ekonomia Zirkularra" jardunaldian



Margarita Muñoz Mercadonaren Ingurumeneko zuzendariaren parte-hartzea Recuwatt-en, 2016an Bartzelonan egin zen hondakinak kudeatzeko nazioarteko kongresuan

### Mundu Hitzarmena

Mercadonak Giza Eskubideen, Lan Arauen, Ingurumenaren eta Ustelkeriaren aurkako borrokaren arloetako oinarrizko balioak defendatzeko Mundu Hitzarmena sinatu du, eta hitzarmen horretako bazkide da. Portaera-arau horiek betetzen dituela egiaztatzen duen aurrerabide-txostenean islatzen da konpainiak zer lan egiten duen hitzarmena sostengatzen duten hamar printzipio eta balioak bermatzeko eta haiek irmotzen jarraitzeko.



Red Pacto Mundial  
España


Mercadonak Mundu Hitzarmenaren barruan egin duen aurrerabideari buruzko txostena (2016)

### AECOC

Oharturik elikagaiak alferrik galtzeak hornikuntza-kate osoari eragiten diola kaltea, Mercadona AECOCen “Elikagaiak ez dute ezer sobran, aprobetxa itzazu” ekimenari atxiki zaio —kate horretako eragile guztiak kontaktuan jarritz, haien arteko sinergiak sortu eta maila guztietan elikagaiak alferrik galtzea saihestea du helburu—. Ekimen honek bat egiten du Mercadonak urteetan zehar bere prozesu guztietan eta bere kabuz abiatu dituen neurriekin, bai eta elkarlanean egindako ildo bereko beste zenbait ekimenekin, hala nola Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartearen (KEE) gisakoekin garatutakoekin.



# 6. DATU GARRANTZITSUAK



		2015	2016
Ingurumena babesten inbertitutako milioi €-ak		25	27
Errepidez eginiko milaka km		352.000	435.000
Trenez garraiatutako tonak		192.000	170.000
Itsasontziz garraiatutako tonak		784.500	833.700
Gaueko deskarga isila erabiltzen duten dendak		572	646
Denda ekoeraginkorrak		819	869
Energia-aurrezpena (milioi kWh)		10	20
Energia-kontsumoa, guztira (elektrizitatea + gasa), GJ-tan		7.217.000	7.441.000
Udalaren hornikuntza-sareetatik atzemandako ura		% 100	% 100
Berreskuratutako kartoi tonak		170.000	181.000
Berreskuratutako plastiko eta poliestireno tonak		13.300	13.400
Berreskuratutako zur tonak		1.679	1.691
Berreskuratutako material tonak		185.000	196.000
Birziklatze-tasa	Birziklatzea / Balorizazioa	% 73	% 74
	Suntsiketa	% 27	% 26
Berreskuratutako pila tonak		150	164
CO <sub>2</sub> baliokideen kg-ak, dendei zerbitzatutako merkantzia m <sup>3</sup> bakoitzeko	Merkantzien garraioa	13,23	12,93
	Energia-kontsumoak	18,53	18,27
	Pertsonalaren lekualdaketak	0,84	0,88
	Hoztea	15,18	15,21
CO <sub>2</sub> -emisioak merkantzia m <sup>3</sup> bakoitzeko (kg)		47,78	47,29
CO <sub>2</sub> -emisioak, guztira (mila tona)		1.515	1.567



---

**Ingurumenaren kudeaketa jasagarriak berebiziko garrantzia du zeinahi konpainiak bide onetik aurrera egin dezan.**

Badakigu hamaika gauza ditugula hobetzeko,  
baina orain arte lortutako emaitzek lanean jarraitzeko kemena ematen digute.





MERCADONA S.A.

C/ Valencia, 5 - 46016  
Tavernes Blanques (Valentzia)  
Telefona: (+34) 963 883 333  
Faxa: (+34) 963 883 302  
Bezeroaren Arretarako doako telefona: 900 500 103

IRMÃDONA SUPERMERCADOS S.A.

Rua Pinheiro Manso, 471  
4100-413 Porto (Portugal)  
Telefona: (+351) 221 201 000  
Bezeroaren Arretarako doako telefona: 800 500 100